

Hizkuntzak abertzaletasunen egituratzean

Simposium hau¹ burutzearen inguruan dagoen tes-
tuingurua kontutan harturik: zeintzu diren laguntzaileak;
zeintzu parte hartzaileak, diziplina tradizio desberdinetar-
tik datozenak, eta nolabait abertzaletasunaren problema-
tika honetan diharduten instituzio eta erakundeetako
partaideak; antolatzaileek, hasieratik, abertzaletasunaren
egoera zientifikoari buruzko eritzi eta eztabaidari eman-
dako garrantziagaitik, eta baita espaniar Estatuako
nazionalismoen benetako egoerari buruz ere, nire saioa
aipatutako testuingurua egokitzen ahaleginduko naiz,
orain interes haundikotzat jotzen ditudan alderdi batzu
hautatu eta azpimarratuz.

«Zalantzarik
gabe,
'abertzaletasuna
' egungo
munduan
gaurkotasun
haundienetakoa
duen
problematika
dugu,
problematika
hau unibertsala
bait da»

Zalantzarik gabe, "abertzaletasuna" egungo munduan gaurkotasun haundienetakoa duen problematika dugu, problematika hau unibertsala bait da, bai ikuspuntu espazial edo geopolitiko bat kontutan artuta, bost kontinenteak ukitzen bait ditu eta bai denboraren edo historiaren ikuspuntuari begira, gaurko historia gidatzen duten fenomenoaren artean garrantzitsuenetakoa, eta egungo egoera geopolitikoaren eratzailerako bait da. Eta gaurkotasun hau, espaziala eta historikoa, gaurko Europan bereiziki bizia eta interesgarria dela esango nuke, eta zehatzagoa izanez, espaniar estatuan.

Era berean, zalantzarik gabe, abertzaletasunaren problematika giza-zientzia eta diziplina desberdinen ikerketa gaia da; beraz, *diziplina anitzen ikuspegia dugu jadanik*, oraindik disiplinarteko ikuspegia nahikoa bateratua ez bada ere; hortaz, teoria desberdinak eta eredu teoriko-enpiriko partzialak ditugu, baina ez teoria bat bere osotasunean. bereiziki garrantzitsua da globaltasun gabezia hau, eta baita Euskal Herrian euskal abertzaletasuna nola ikusi behar den eta gaur nola ikusten den isladatzeko asmoa, abiapuntutzat hartuz uler daitezke nire azalpenaren edukina eta estiloa.

Hemen ukitu nahi dudana gaia, zera da zehazki, abertzaletasuna eta lengoaiaren arteko harremanen alderdi batzuek alegia, edo hobeki esan, hizkuntzak, hauek abertzaletasunaren egituraketan dituzten aztarnak abiapuntutzat hartuta.

Hizkuntzaren aztarna abertzaletasunaren egituraketan

Horrelako formulazio orokor batetik abiatuturik abertzaletasunarekin orokorrean, eta euskal abertzaletasunarekin bereiziki, zerikusirik duten arazo desberdinei buruz hitz egin genezake. Orain, arazo nagusia zera izango da, hizkuntzak edo hizkuntzek prozesu abertzaletan egituratzeko eta gidatzeko dituzten moduetako batzuek aipatzea alegia.

1) Eutsitako "bertakotasun" sozio-kulturalaren ezaugarritik, batez ere antropologikoa den ikuspuntutik.

Ikuspuntu teorikotik nahiz enpirikotik, eta diziplina tradizio desberdinetan, abertzaletasunaren fenomenoak

ren, eta abertzaletasun historikoen, definizio eta deskribapenetan errepikatzen diren ezaugarri batzu aurkitzen ditugu. Ezaugarri hauetako bat "*bertakotasuna*" da, talde abertzaleak edo nazionalismo zehatz bateko talde protagonistak berezko duen hizkuntzan antzeman daitekeena.

Bertakotasun honek haxe esan nahi du, badagoela ezaugarri multzo bat giza-taldearen beraren jatorrizkoak bezala ezagutzen direnak eta berezko eta desberdinak bezala inguruko gizataldeekiko, giza-talde hau identifikatzeko balio dutenak, bai barne-talde bezala, baita kanpo-talde bezala ere. Ezaugarri hauetako bat gehienetan bertako hizkuntza izaten da, eta honek hizkuntza hau taldearen berezko hizkuntzat jotzera darama alor guztietan, bai simbolikoki eta bai praktikoki, honelako taldeen prozesu abertzaleetan leku haundi bat hartzen duenari. Hau dela eta, ezaugarriok dituzten taldeei "komunitate etnolinguistiko" deitzen zaie, hizkuntzak talde bertako izaera etnikoaren, eta beraz nazionalaren, sinbolo direlarik, era horregatik baita prozesu abertzaleenak ere.

Hizkuntzaren balio sinboliko hau estatu eta estatu-nazio edo orokorrean herrialde askoren izenetan ere agertzen da, adibidez, Espainia edo espaniar Estatua, Txekoslovakia edo txeko eta eslovakiarren estatua, etab.

Bertakotasunak "*jatorrizkoa*" ere esan nahi du, hala ikuspuntu espazial batetik, lurralde jakin batekiko loturari dagokiona, nola ikuspuntu historiko batetik, jatorrizko "*lurraldetasuna*" historikoki onartzen bait da. Hortaz, hizkuntza komunitate etnolinguistiko edo nazio baten lurralde eskakizunen ikur bihur daiteke behin eta berriro prozesu abertzale orotan.

Horregatik, eta ikuspuntu honetatik, "*euskal komunitate etnolinguistiko*" az hitz egin dezakegu Euskal Herriari dagokionez (hau da, gaurko Euskal Autonomi Elkarte, Nafarroa, eta Ipar Euskal Herria). Honek justifikatzen du nazionalismoek duten lurralde aldarrikapena eta baita ere beren kezka hizkuntzen zabalkundearekiko, berreskurapen eta normalizazioaren bitartez minorizazio kasuetan, euskal abertzaletasunean euskararekin gertatzen den

*«Ezaugarri
hauetako bat
gehienetan
bertako
hizkuntza izaten
da, eta honek
hizkuntza hau
taldearen
berezko
hizkuntzat
jotzera darama
alor guztietan,
bai simbolikoki
eta bai
praktikoki»*

«Ikuspuntu
honetatik,
'euskal
komunitate
etnolinguisti-
ko'az hitz egin
dezakegu Euskal
Herriari
dagokionez (hau
da, gaurko
Euskal Autonomi
Elkartea,
Nafarroa, eta
Ipar Euskal
Herria)»

bezala. Eta horregatik ere, etorkin talde haundiei degokienez, ez da komunitate etnolinguistiko edo nazioaz hitzegiten, ezta nazionalismoaz ere, adibidez New York-eko portorrikar edo Alemaniako espaniarren kasuan.

2) Bertako ezaugarri "sozio-kultural"etatik abiatuz.

"Bertakotasun sozio-kultural"az hitzegiteak zenbait gauza esan nahi du. Nik orain azpimarratuko nukeena hau da, egungo egoera mugatu eta ez-normal bat onartzearen esanahia. Horregatik, abertzaletasunak eutsitako egote egoerak eta galeren ondoriozko egote ezak suposatzen dituzte, baita prozesu aldarrikatzaile totalizatzaileak ere, baina egote eza horiei dagokienez batez ere. Normalean gehien gorde izan diren ezaugarriak, kulturalak dira; horregatik, zenbait ideologiatatik abertzaletasunak, mexpretxuz, "mugimendu kulturalista"tzat jo dira, zenbait mugimendu musikal artzen diren bezala adibidez. Eta gehien falta diren ezaugarriak, galera gisa gehien sentitzen direnak eta horregatik hein aundi batetan eskabide nazioanalistak zentralizatzen dituztenak, erabakiak hartzeko eta kontrolatzeko berezko ahalmenarekin zerikusirik dutenak dira, hau da, botere politiko eta era guztietakoarekin zerikusirik dutenak.

Askotan zera gertatzen da, hizkuntza ezaugarri partzialki present dagoena nahiz ez dagoena dela, Euskal Herrian euskararekin gertatzen den bezala. Hau da egoerarik egokiena bertako hizkuntza bertako hizkuntza komunitate etnolinguistiko edo nazio osoaren ikur bilaka dadin, eta baita abertzaletasunarena ere, euskal abertzaletasunaren kasuan historikoki, eta nolabait gaur ere, onartzen dena, horregatik "euskal abertzaletasuna" izena egokia da. Norabide berbera daramate Sobiet Batasuneko nazionalismo berriek ere, adibidez, nazionalismo armeniarrek, lituaniarrek, etab.

Kasu hauetan da ere mugimendu eta nahikunde abertzaletari historikoki legitimitate haundiagoa aitortu zaiela, legitimitate hau gaur egun formalki den askatasun, berdintasun eta elkartasunari buruzko ideologiak bultzatzen duelarik, ideologia honek giza eskubideei buruzko deklarazioaren zabalkundea eragin duelarik lehenik, bertan berezko hizkuntzarekiko eskubidea jasoz,

eskubide zibilak gero eta eskubide sozialak gaur egun.

3) "Mantendu den historizitate" ezaugarria kontutan harturik.

Eutsitako bertakotasunaz, giza-talde baten historizitateaz eta gaurko iraunkortasunaz hitz egiteak honako hau esan nahi du:

- Oraindik orain bizirik dela, bere higadurak, desagertzeak, galerak, eraldatzeak, e.a. dituen arren, eta igarotako eta gaur egun jasaten dituen eragozpen historikoak baditu ere, bizirik dela.
- Eta horregatik hain zuzen ere onuragarria eta lortu beharrekoa dela bere iraunkortasuna etorkizunean.

Hori dela eta, historigile batzuk *komunitate etnolinguistiko* eta iraunkortasun luze eta tinkoa; iraunkortasun eta iragankortasunaren arteko konbinaketa historikoaren adibide garbiak direla, eta baita ere jarraipen eta aldakuntzaren artekoarena, etab.

Testuinguru honetan, eta *euskarak euskal abertzaletasunarekiko* duen lotura kontutan hartuta, ulertzen dira honako hauek:

- Euskal Herrian *egungo egoera ezagutzeko gaur egun dagoen kezka haundia*, bai orokorki eta bai euskararena. Euskarari dagokionez: zein eta nolakoa den bere ezagutza, erabilpen soziala, balio soziala, zein jarrera eta motibazio eragiten dituen, "euskal identitatea" egituratzerakoan duen zeregina, euskal politikagintzan duen erabilpen sinboliko-pragmatiko-programatikoa, etab. Honela, oraindik ezagutzeke asko dugula onartu beharra dugu, nahiz eta azken urteotan azterketek aurrerapen haundia izan duten.
- Edo euskarak izan duen *balio biltzaile nagusia XX mendeko euskal abertzaletasunaren hiru momentu historikoetan: frankismo-aurrean, frankismo garaian eta gaurko frankismo-ostean. Biltzailea, zentzu guztietan:*
- Soziodemografikoki, euskararen erreibindikazioak eta

«Gehien gorde
izan diren
ezaugarriak
kulturalak dira;
horregatik,
zenbait
ideologiatatik
abertzaletasunak
mexpretxuz,
'mugimendu
kulturalista'tzat
jo dira, zenbait
mugimendu
musikal hartzen
diren bezala
adibidez»

bere alde egoteak gizarte maila guztietako populazioa barne hartu bait zuen;

- Mota guztietako baliabideei dagokienez, bai ekonomikoki nahiz giza baliabideei, eta kopuru handian, berauen erabilpena estegabekoa izan delarik. Horretarako, ikastolen historia gogoratzea besterik ez dago;
- Era guztietako ekinbideen eragiletzat, oso iharduera desberdinena alegia, instituzionalak eta bestelakoak, publiko eta pribatuak, legezkoak nahiz legez kanpoak (frankismo-osterainoko ikastolen sorrera, edo Euskal Telebistaren (ETB) agerpena adibidez, etab.

Euskararekiko lotura duten gertakari guztion *bilketa eta analisi lana* behar dugu, gaurko euskal abertzaletasuna hobeki ulertu eta baloratzeko balioko ligukeena, beste gauza batzuren artean.

«Euskararekiko lotura duten gertakari guztion bilketa eta analisi lana behar dugu, gaurko euskal abertzaletasuna hobeki ulertu eta baloratzeko balioko ligukeena»

4) Gehienbat historiak eta soziologiak landutako "gatazka" eta "boterea"ren teoriak abiapuntutzat hartuz.

Abertzaletasunaz arduratu diren diziplina desberdinek beste ezaugarri batzu ere utzi dizkigute, historikoki errepikatu direnak, abertzaletasunak orokorrean eta euskal abertzaletasuna bereziki, *sortu, geratu eta erabakitzen diren zergaitiei eta moduei dagokienez*. Ezaugarri hauek era guztietakoak dira: politikoak ekonomikoak, sozialak, ideologikoak, kulturalak, linguistikoak, etab., nahiz eta kasu bakoitzean, eta kasu bakoitzeko une bakoitzean, alderdi batzu besteak baino gehiago nabarmendu eta ezaugarri batzu beste batzu baino gehiago. Ezaugarri hauetako batzu honako hauek dira:

- Abertzaletasuna bi talderen arteko problematika gisa planteatzea: abertzaletasunari dagokion taldea, gure kasuan Euskal Herria eta euskal abertzaletasuna, eta orokorki *barne-taldea* deritzana, eta barne-taldearekin nahitaez harremanik duen edo duten talde edo talde multzoak, *dagozkion kanpo taldeak* bilakatzen duelarik, Euskal Herriarekiko espaniar eta frantses diren bezala hau da, taldeen arteko derrigorrezko harreman batzu ditugu hemen.
- Abertzaletasunari, eta euskal abertzaletasunari,

dagozkion barne-talde eta kanpo-taldeen arteko *interdependentzia asimetrikoaren egoera* dagoela onartzea. Interdependentzia hau kanpo-taldeen aldetik ezinbestekoa denez, barne taldeak *inposaketatzat* antzematen du bere baitan, egoera hau *dependentzia*-tzat jotzen duelarik. Horregatik, mugimendu abertza-leak gatazka eta boterearen teoriari lotutako ideologia erabiltzen dute, eta oposizio totalizatzaile gisa agertzen dira, indar eta gogortasun desberdinez, dependentzia mailaren arabera. Hau da euskal abertzaletasunaren egoera historikoa eta baita gaur egunekoa ere.

Hau da, era berean, *euskarari dagokionez gehienbat ematen den arrazoinketa*, batzutan soziolinguistikatik jasotako beste terminologia zehatz bat erabiliz gainera, adibidez:

- Diglosia, elebitasunari kontrajarriz;
- Hizkuntza menperatua, behe-mailako hizkuntza izango litzatekeelarik, hizkuntza nagusiari kontrajarriz, ia beti goi-mailako hizkuntza barnetaldearen baitan;
- Gutxiengoaren hizkuntza (ikuspegi sinkronikotik), eta gutxiagotua (ikuspegi historikotik), adjektiborik gabeko hizkuntzari kontrajarria, hau da hizkuntza normalari;
- Hizkuntz berreskuperapena eta ber-normalizazioa, hizkuntz plangintza egoki baten bitartez, hizkuntz politika eragile batek zuzendurik;
- Barne-taldearen baitan aldi berean dauden hizkuntzen arteko berdintasunaren zailtasun enpirikoa, eta areago, elebitasun orekatu baten ezintasuna, generalean menpekotasun harremani egozten zaielarik; horregatik, elebakartasun sozialaren (ez indibidualaren) beharraz hitzegiten da Euskal herrian euskarari dagokionez, eta horretarako behar den ez-menpekotasunaz, autonomia zabal batetaz edo baita independentzia politikoz ere. Hots, nazionalismoen *independentismo* tipikoa euskararekiko ideologian ere isladatzen da. Eta zailtasun enpirikoa aipatu dugu, batez ere ideologia hau honako gertaeretan oinarritzen

«Hizkuntza
komunitate
etnolinguistiko
edo nazio baten
lurralde
eskakizunen ikur
bihur daiteke
behin eta berriro
prozesu
abertzale

«Mugimendu
abertzaleak
gatazka eta
boterearen
teoriei lotutako
ideologia
erabiltzen dute,
eta opozizio
totalizatzaile
gisa agertzen
dira, indar eta
gogortasun
desberdinez,
dependentzia
mailaren
arabera»

delako: Euskal Herrian euskarak duen egoera juridikoa inguruko hizkuntzekiko, Konstituzio, Autonomi Estatutu, Euskararen erabilpenerako lege eta hizkuntzei dagokien gainerako legediaren testuetara joaz; edo euskalduntze zein euskal kontzientziatze prozesuetan instituzioek duten inplikazio eskasera joaz.

- *Abertzaletasunaren problematikaren aplikazio maila egokia estauena dela onartzea*, bai barne-taldeak nahiz dagokion kanpo-taldeak. Hau da, bai historikoki eta bai gaur egun, nazionalismo motarik ainarrizkoenetako bat komunitate etnolinguistikoki bat eta komunitate hau bere baitan hartzen duten estatuaren edo estatuaren artekoarena dela, euskal nazionalismoaren kasuan bezala; horregatik, abertzaletasunak eskubide guztiak dituzten nazioak izateko nahia adarrikatzen dute, beste edozein bezala nazioarteko harremanetan parte hartzekoarena:
- Estatu-nazio bat gehiago bihurtuz, horretarako egun dauden estatu nazio batzu eredutzat hartuz, eta honela Europako Elkartea bezalako erakunde supranazional eta supra-estataletan normaltasunez parte hartuz. Eta hau da, hain zuzen ere, gaur arrakastatsua izan diren nazionalismoek hartutako bidea.
- Edota halako autonomia zabala lortuz kanpo-taldearen estatuan, ezen zera suposatuko bait du, bai benetako autonomien estatua gauzatzea, eta bai Europako Elkartea bezalako erakundeetan autonomoki parte hartzea. Bide honek, halere, arazo bikoitza sortzen du: nazioartekoak omen diren harremanetan estatuak dutela gaur egun protagonismoa, eta ez dirudi etorkizun hurbilean egoera hau aldatuko denik; eta ez dagoela horretarako eredu errealik.
- Eta, baita ere, *talde menperatuen egoera desabantaila egoera dela onartzea*, nagusitasun egoerari kontrajarria, egoera hau abantaila pribilegiatuarena izanik. Eta hau, gutxienez, bi zentzuotan:
- Talde menperatzaileak eragindako talde arteko harremanen *desberdintasun eta aldakortasun* posibilitateak, alderdi guztietan eta baita ideologikoan ere,

haundiak direlako;

- Eta aipatu desberdintasun eta aldakortasuna talde menperatuen erantzunak, erantzun ideologikoa barne, gidatzearen araberakoak direlako bereziki. Hau orokorki arrakastaz egiten dela aitortu behar dugu.

Hau ere agertzen da euskal abertzaletasunaren baitan, eta euskarari dagokionez, era desberdinez eta bere berreskuperari lotutako ekinbide desberdinak direla etab. Adibidetzat, *kanpo-talde menperatzaileak Ikastolei buruz emandako zenbait interpretazio gogora genezake*, beren izen ona galdu eta desagen erazteko, euskal barne-taldearen baitan honela azaldu direlarik:

- Faxista eta arrazistak bailiran, frankismo garaian batez ere, paradoxikoki.
- Burgestzat hartuz, frankismo-ostearen hasieran batez ere, aipatu kontzeptuak prestigio gabeziarik haundiena jasan zuenean hain zuzen ere, eta nahiz eta Euskal Herriko beste eskola motekin konparatuz gero, ikastolak demokratikoenak eta sozialki ordezkartzarik haundiera duten eskolak izan.
- Populazioa bi komunitateetan banatzen saiatzen direnak bailiran aurkeztuz beranduago, ikastolak izan direnean, hain zuzen ere, integrazio demokratikorik haundiena eta hoberena eskaini duten eskolak;
- Edo indarkeriaren eragile izatea leporatuz gaur egun.

Berriro ere, euskal barne-taldearen aldetik bere ideologiaren ekoizpena erabat eskasa izan dela aitortu behar dugu, ia beti kanpo-talde menperatzaileak eragindakoa-
ren aurrean defentsiboki erantzutera mugatu delarik. Halere, eguneroko bizitzako euskal pragmatismoak zorte hobegoagorik izan du, atxikitasun tinko baten estiloari jarraiki, honek beharbada euskarari dagokionez lortu diren lorpen batzutan eragina izanik, honela talde arteko harremanen psikosozioologiak "gutxiengo aktibo"en benetako eraginaren posibilitateaz azaltzen diguna baieztatuz.

Ilido beretik, kezkatu agertzen gara Ikastolen tratamen-

«Elebakartasun
sozialaren (ez
indibidualaren)
berraz
hitzegiten da
Euskal Herrian
euskarari
dagokionez, eta
horretarako
behar den
ezmenpekotasu-
naz, autonomia
zabal batetaz
edo baita
independentzia
politikoaz ere»

duari dagokionez ematen ari den aldaketa kualitatibo sakonaren, eta beronekin batera datorren ideologiaren aurrean. Aldaketa ideologikoetako bat erabiltzen den arrazoinketa motan azaltzen zaigu: ez formulazio negatibo eta desprestigioa bilatzearen bidez, orain arte gertatu den bezala, baizik eta baiezko formulazioen bitartez, berauek aztertu eta interpretatzea garrantzitsu eta premiazkotzat jotzen dugularik. Premiazkotasun hau, ikastolak gaur egun arte bezala geroan ere jarraitu ala ez erabakitzeke, une kritikoan gaudelako sortzen da; eta garrantziaren zioa orain arte, enpirikoki, Euskal Herriko behar sozial eta ekademiakoei erantzunik haundiena eta hoberena eman dien Eskola izatea.

Testuinguru honetan, Eusko Jaurlaritzak idatzi eta egun hauetan ezagutzera emandako Euskal Eskola Publikoaren Legearen Zirriborroak eragin digun etsipena ezin dugu ezkutatu, bai euskarari emandako tratamenduagaitik nola ikastola eta Eskola Publikoak euskal eskola publikoaren sare bakarrean bateratzeko asmoagatik, ikastolatik datozen izen eta asmoen arabera, edo ikastolak sare publikoan sartzeko asmoagatik, gaurko sare publikoari lotutako sektore batzutatik jasotako izen eta asmoei jarraiki.

5) Abertzaletasunari dagokionez, "demokrazia" eta "modernitate" kontzeptuak abiapuntutzat hartuta.

Abertzaletasunarekin batera, bai teorian eta bai praktikan, gehienetan izan ditugun beste ezaugarrietako bi, "demokratizazioa" eta modernitatea" dira. Eta hau mugimendu abertzaleen baitan beren hizkuntzei emandako tratamenduan ere isladatu izan da, eta gure kasuan, euskarari emandako tratamenduan.

Euskal abertzaletasunaren kasuan, demokratizazio eta eta modernizazio prozesu hauen aldeko jarrera izan dugu eta partzialki burutu egin dira, alderdi guztietan, batez ere euskal abertzaletasunarekiko sentsibilitaterik haundiena dagoen lurraldean, hau da, Euskal Autonomi Elkartean. Gainera, bi prozesu hauen emaitzak herriak biztanlegoak orokorrean antzeman ahal izan ditu, bere eguneroko bizitzan eragina bait dute, eta "egunerokotasun" ezaugarri honek gaur egun funtzeskoa dirudi, egun diziplina humanistek (soziologiak eta psikologia sozialak

adibidez) esaten diguten arabera, eta gaur egun nazionalismorik interesgarrienak eta hobekin ezagutzen denak, Quebec-ekoak alegia, enpirikoki erakusten digun bezala.

Horrela, eta gure kasuei helduz, zera esa dezakegu, gaurko euskal eta kataluniar nazionalismoek beren eragina izan dutela, eta oraindik dutela, ez talde barruko demokratizazio eta modernizazioan soilik, Estatu osoaren demokratizazio eta modernizazioan ere, baizik, hau argi onartzen ez bada ere. Eragin honen adibideetako batzu honako hauetxek dira:

- "Autonomien Estatu" baten proiektua eta eraketa bera, lortu duen garapenez at, hau Euskal Herria eta beste zenbaitentzat eskasa izan delarik, eta orain arte behintzat kanpotaldearentzat batipat onuragarria izanik.
- Eta berriki izan diren lorpenak euskal barne-taldea berarentzat, adibidez: soldata sozialaren ezarpena; osasun prestazio publikoaren orokortzea; hiru urtetik eskolaratzeri dagokion asmoaren adierazpena, etab., are garrantzitsuagoak izanik kontutan hartzen badugu Euskal Autonomi Elkartearen, baina ez estatu osoan, gertatu direla.

Eta euskarari dagokionez, demokratizazio eta modernizazio prozesuek emaitza batzu eman dituzte ere, esate baterako:

- Euskara batuaren moldaketa.
- Kotsentsua, barne-talde mailan Estatu mailan baino gehiago eman dena, Euskararen erabilpenaren Normalizatorako Legearen formulazioari dagokionez, eta halaber euskara eta hizkuntzei dagokien gainerako legediari buruzkoa, baldin eta euskararen benetako berreskuperaren eta normalizatorako lehen pausutzat ulertzen dugun.
- Euskalduntze prozesua eta euskararen erabilpen sozialaren haundiagotzea, barne-taldearen demokrati-zazio eta atxekitasunerako ezinbestekoak direnak, erritmoa geldoegitzat jotzen bada ere.

*«Europako
Elkartea
bezalako
erakunde supra-
nazional eta
supra-estataletan
normaltasunez
parte hartzea
izan da, gaur
arrakastatsuak
izan diren
nazionalismoek
hartutako bidea»*

*«Euskal barne-
taldearen aldetik
bere ideolo-
giaren ekoizpena
erabat eskasa
izan dela aitortu
behar dugu, ia
beti kanpo-talde
menperatzaileak
eragindakoaren
aurrian
defentsiboki
erantzutera
mugatu delarik»*

- Eskola piskanaka euskalduntzea, A hizkuntz eredutik (irakaskuntza gazteleraz eta euskara asignatura izanik B eredura igarotzearen bitartez (euskara eta espainierazko irakaskuntza) eta B eredutik D hizkuntz eredura (euskarazko irakaskuntza gaztelerazko asignatura batekin).
- Hiru urte betetzen danetik eskolaratzearen orokortzea, belaunaldi berrien elebitasun goiztiar baterako probetxatu daitekeena, hau gerta litekeen erraztasun erlatiboagatik, guzti honek ekarriko lituzkeen abantailaz. Eta abantailen artean, garrantzitsutzat jotzen dut eskolan bi hizkuntza atzerritarren ezagutza lortzeko plangintzarako posibilitatea, bi hizkuntza ofizialen ezagutza-maila nahikoaren ondoren, derrigorrezko eskolaratzea hamasei urterarte luzatuko dela kontutan hartuta batez ere. Eta hau gertagarritzat ematen duguna, oso garrantzitsua dela uste dugu testuinguru europarren modernizatze sozial baterako, eta oso garrantzitsua halber barne demokratizazioarako beste faktore gisa.

Hau da, abertzaletasunek orokorrean, eta euskal abertzaletasunak bereziki, ez direla gauza zaharkitu eta gaukotasunik gabekoak erakutsi digute; alderantziz, gauza aurrerakoi, eraginkor eta gaurkotasunez beteak direla ikusten dugu.

6) Eta ikuspuntu "psiko-soziologikotik" abituruz gero.

Abertzaletasunaren azterketari psikologia sozialetik ere ekin diezaiokegu, problematika honi bere teoria eta eredu ugariak aplikatuz, abertzaletasun desberdinei buruz, euskal abertzaletasunari buruz adibidez, nolabait jadanik egin den bezala.

Gertaera psiko-sozialetan gertaera sozial eta sozio-politikoen eragina aderantzizkoa baino garrantzitsuagoa dela uste dugun arren, edo horrexeagaitik hain zuzen ere, funtsezkotzat jotzen dugu abertzaletasunaren azterketa psikosoziala, honako arrazoiak direla eta:

- Erantzun psikosozial desberdinetan, gertaera sozial eta politikoen eragina hobeto ulertu ahal izateko, gure kasuan euskarari (eta Euskal Herriko gainerako alderdi

bereizgarri eta interesdunei) dagokienez.

- Hizkuntz jokabide desberdinen plangintza agiteko garaian, berauekin zein alderdi soziolinguistiko erlazionatzen den jakiteko, adibidez, eskolan euskara bigarren hizkuntzatzat ikasteko garaian, edo lan munduan euskarak duen erabilpen sozialari dagokienez, edo plangintza soziolinguistiko jakin baten onarpen sozialari buruz.
- Barne-taldearen edozein proiektu demokratizataile eta modernizaileri dagokionez, onarpen eta partaidea orokorra nola lortu jakin ahal izateko.

Abertzaletasunari aplika dakizkiokeen eredu psikosozialetako batzu, eta neurri batean partzialki euskal abertzaletasunari jadanik aplikatu direnak hauek dira:

- Gizarte errepresentazioena.
- Baliabideen motibazio ereduak edo espero den balioa.
- Nortasun sozialarena, talde arteko harramanetan teoriaren baitan.
- Gutxiengo aktiboen eraginarena, etab.

Berriro ere, ezagutza psikosozialen urritasuna aitortu behar dugu abertzaletasuna orokorki artuta dagokionez, euskal abertzaletasunari, euskarari eta Euskal Herria ikutzen duten hizkuntzei dagokienez. Hala eta guztiz ere, beren garrantzia aldarrika dezakegu, bai ezagutzen dugunarengatik, eta bai sumatzen dugunagatik. Honela, adibidez:

- Badakigu, euskara ikasteko erabakiari dagokionez, eta ikasketa horretan lortutako maila edo hizkuntz errendimenduari dagokionez zerikusi haundiagoa duena motibazioarekin jarrerarekin baino, eta motibazio pragmatiko edo instrumentarekin motibazio ideologiko-sinbolikoarekin baino.
- Badakigu euskal nortasun nazionala, espaniar nortasun nazionalari kontrajartzen zaion hainean Euskal Autonomi Elkarteko biztanlegoaren gehiengoak

«Gaurko euskal eta kataluniar nazionalismoek beren eragina izan dute, eta oraindik dute, ez talde barruko demokratizazio eta modernizazioan soilik, baizik eta Estatu osoaren demokratizazio eta modernizazioan ere»

*«Abertzaletasun-
nek orokorrean,
eta euskal
abertzaletasunak
bereziki, ez
direla gauza
zaharkitu eta
gaurkotasunik
gabekoak
erakutsi digute;
alderantziz,
gauza
aurrerakoi,
eraginkor eta
gaurkotasunez
beteak direla
ikusten dugu»*

sentitzen duena, eta maila sozial desberdinetako giza-
taldeak (adin, lanbide, maila ekonomiko, etab.en
arabera). Hau hala da, bai 10-11 urteko gaztetxo-
engan ere.

- Badakigu halaber, euskararen ezagutza euskal nortasun honen osagaitzat jotzen dena, baina ez oso funtzesko osagaitzat, arrazoi hauek direla medio:
- Alde batetik, euskararen ezagutza dutenak gutxiengo dira Euskal Herrian (gutxi gora behera, populazioaren laurdenak euskararen ezagutza ona duela adarrikatzen du, eta beste laurden batek gutxi dakie-la, Euskal Autonomi Elkartearen). Aldi berean, euskara etorkizunean ezagutzeko asmo eta bere aldeko jarrerak Euskal Autonomi Elkartearen populazio ia osoa harrapatzen dute.
- Eta, bestalde, euskararekiko joera negatibo bat azaltzen da, hau da, euskal populazioa zenbat eta gazteagoa izan, orduan eta gutxiago uste du euskararen ezagutza "euskalden izate"aren ezaugarri garrantzitsuena dela. "Euskaldun izate" sentimendu hay hobekin definituko lukeen ezaugarria "euskaldun izateko borondatea" izango litzateke, ondoren "Euskadin bizi eta lan egitea" etorriko litzatekeelarik. Baina, paradoxa bada ere, kanpo-taldean eginiko ikerketen arabera, euskara agertzen de euskaltasunaren ezaugarri garbi eta garrantzitsuenetakotzat.

Hauek eta honelako beste datu batzu azaltzen dira euskararen erabilpenari dagokionez ere, eta gure ustez talde arteko harremanen baitan dauden mugei buruzko teorizaziotik, eta barne-taldea edo kanpo taldearen balorazioa egiteko garaian alde baterako nahiz besterako makurduretatik interpreta litezke, adibidez, barne-taldeak taldearteko muga eta diferentziak garbi ezartzea, barne taldearen baitako harremanak estaltzen dituen artean.

- Azkenik badakigu enpirikoki eragin psikosoziala haundiagoa dena euskara eskolan bigarren hizkuntzat ikasten direnean baino, soziolinguistikak iragartzen digun bezala. Hizkuntzak elkarren ondoan ditugun egoera honetan hau honela, enpirikoki, 10-11

urteetan jadanik azaltzeak eskola euskalduntze goiztiar baterako erabiltzea egokia litzatekeela pentsatzera bultzatzen gaitu.

Eta nere saioa bukatzeko, gogoeta bikoitza batez amaitu nahiko nuke:

- Abertzaletasunaren problematikaren ezagutza-mailari dagokionez, eta hemen gaudenok arduratzen gaituen nazionalismo zahatzei buruz, oraindik partziala dela aitortu behar dugu. Baina hau, guretzat, faktore eragingarria izan daitekeelakoan nago, beste arrazoen artean, diziplina anitzetatik iker dezakegulako.
- Eta sinposium honen egokitasunari buruz, elkarrekin gogoetak egiteko eskaintzen digun aukeragatik, hein batetan Estatu espaniarraren barruan dauden nazionalismoen problematikaren konponbidea aurkitzeko laguntza eman dugulakoan, bilkura hau ikuspegi desberdinetatik emankorra izatea espero dut, eta era berean, ondorengo bilkura batzuen artean lehena izan dadin.

Oharra:

1.- Abertzaletasunaren psikologia sozialari buruzko simposiumean aurkezturiko txostena da hau, Valvanerako monastegia. 1989ko urria.

Maria Jose Azurmendi

*Psikosoziolinguistika irakaslea UPV/EHUn
Psikologia Sozial eta Metodologia Saila*